

Ekina baragarria da

Abuztuko euria, ardaoa eta ezitia.

Abuztuan euri gitxi egiten dauenez, euria egitea asko estimetan da

Aharrausi usua, logura eta gosea.

Aharrausi egitea logurearen edo gosearen seinale izaten da

Ahuntza infernuko hautsa, ardia zeruko landa garbia.

Ahuntza animalia okerra eta ardia ona dala esateko erabilten da

Aita non dago? Alkondaran. Ama? Atorran.

Nork bere egitekoak ditu

Alaba bakarrak surteko hautsa bere-beretzat.

Seme-alaba bakarrak gurasoen ondasunak ez eze, gaitzak ere berak sufritu behar ditu

Alperraren urak tenple bi: beroegi edo hotzegi.

Alperrak beti aurkitzen du aitzakiaren bat lanik ez egiteko

Andra Maria martiko, uda da betiko.

Martian eguraldi ona egiten hasten da

Arantza bako larrosik ez dago.

Gauza guztiek daukie alde ona eta txarra

Arotzaren etxean, otzara aulki; errementariarenean, zotza burrunzti.

Norberaren etxean norberak egiten dituan gauzak ez dagozanean, edo norberak dituan gaitasunak etxean erabilten ez diranean esaten da

Arrats gorri, goiz argi; goiz gorri, iluntze iturri.

Arratsaldean zerua gorrizka dagoanean, hurrengo eguna argia izango da. Baina alderantziz gertatzen bada, hau da, zerua goizean gorrizka badago, iluntzean euria dakar

Asteak, guztiak balira jai, gazte alperrak hori nahi.

Alperrak beti nahi du alperkerian ibili, egun guztiak jaiegun bailira

Ekina baragarria da

Astehenerako euria, aste guttirako euria.

Astehenean euria egin ezkeru, aste guttian euria egingo dau

Asto bati buztana kendu eta besteari ipini.

Gauza bat konpontzeko beste bat izorratzen danean erabilten da

Asto txarra ez da sekula errentzen.

Asto txarragaz behar gitxiago egiten da, horregaitik minduteko aukera gitxiago dauka

Astoa saldu eta mandoa erosi.

Ona hobearen truke aldatzeko gogoz egon baina antzekoarekin geratzen garenean erabiltzen da

Atxur bakotxak bere astea dauko.

Danak dauka bere pare; beti aurkitzen da norberaren moduko pertsona bat

Auzoko behiak esne gehiago emoten dau.

Beti pentsatzen dugu ondokoa hobeto dabilela nahiz eta horrela ez izan

Auzokoen negarrak ez dau minik emoten.

Zoritxarrean jente gitxik laguntzen dau eta norberak bakarrik sufriduten dau sarritan

Azaroa hotz, negua motz. Azaroa bero, negua gero.

Negua lehenago edo beranduago etorri egiten da etorri

Batzuetan urak handi, beste batzuetan munak handi.

Bizitzan gorabehera handiak izaten dirala adierazten dau

Begi bik baino gehiago ikusten dabe lauk.

Bakarrik baino, beste baten laguntzaz hobeto egiten dira gauzak

Behar ez dan bedarra erein barik erne.

Gauza txarrak eskatu barik gertatzen dira

Ekina baragarria da

Behargin onarentzat beti beharra, alperrarentzat inoiz ez.

Behargina denak beti aurkitzen du zeregina, alperrak ostera, ez

Behargin onarentzat ez dago erreminta txarrik.

Behargin ona danak edozein modutara eta edozein tresnagaz egiten dau lan; behargin txarrak, ostera, beti ditu lan ez egiteko atxakiak

Beharrak ez deutso itxaroten denpora onari.

Denpora onean zein txarrean, egunero egin behar da lan

Beheko suak aurrea berotu eta atzea hotzitu.

Gauza guztiek daukie alde ona eta txarra

Belea ez da baltzago egingo.

Gauzak txarto doazanean, okerrago ezin dirala joan adierazoteko erabilten da

Beleak ez dau belakirik jaten.

Inork ez deutso kalterik egiten bere kide danari

Berba bigunak eta diruak dana arregletan dabe.

Modu onez eta diruagaz edozer gauza lortu daiteke

Beti beharrean eta beti kaka morralean.

Lan asko egin arren, beti pobre

Bolo-bolo dabilena, etxetik urtena.

Etxeko trapu zaharrak askotan etxekoek ateratzen dituzte kanpora

Bostak eta iluna, txarria hiltzeko eguna.

Neguko egunak sano laburrak izaten dira, eta txarriak orduantxe hiltzen dira

Burua txapela ipinteko bakarrik ez da.

Burua pentsetako be erabili behar da

Ekina baragarria da

Bururik ez daukanak, hankak ibili behar.

Zeozeren bila joan eta bertan ahaztu ezkerro, hankak erabili beharko ditugu bueltau eta berori

Dagoenean bonbon, ez dagoenean egon.

Egoerea aproposa danean, aprobetxau egin behar da; ez danean, ordea, dagoanagaz konformau beharra dago

Dakienak badaki; ez dakienak baleki.

Dakianak irakatsi behar deutso ez dakianari

Eduurraren gaineko leia, edurraren deia.

Edurra egin ostean leia bota ezkerro, barrero edurra dakar

Eguerdian jaiki danak ez dau zaporik zapalduko.

Zapoak egun argitan ibiltzen ez diralako

Egunik luzeena San Juanena, gaurik luzeena Santa Luziarena.

San Juan eguna da egunik luzeena udako solstizioaren inguruan izaten da eta. Negukoa, ostera, Santa Luzia inguruan da eta orduan izaten da gaurik luzeena

Egur eskarmentatua sugin ona da.

Esperientziak erakusten deusku zelan jokatu egoera desbardinetan

Ehun txori hegaz baino, bat eskuan hoba.

Hobe da ziurra dana gitxi izan arren hartu, eta ez asko euki gura izatea, sarritan ezer be barik gelditzeko arriskua dago eta

Eperdi bategaz ezin okupatu banku bi.

Pertsona batek ezin ditu gauza bi aldi berean egin

Erreal biren pupua eta zortzi marabediren trapua.

Gauzak neurritz kanpo hartzen dituenari esaten zaio

Ekina baragarria da

Esnerik ez bada katiluan, zeozer txarra ukuiluan.

Arazoak konpontzeko euren jatorrira jo behar da

Etxea ezin gobernau eta auzokoa gobernau behar.

Inoren bizimodua maneja gura eta norberarena egiteko kapaz ez danagaitik esaten da

Etxean zer ikusi, ha ikasi.

Umeak etxean ikusitakoa ikasten dau

Euri-tangadak alperrari joten deutso lehenengo.

Behargina alde batetik bestera ibiltzen danez, ez da konturatzen euria egiten dauenik be; alperra geldi egoten danez, bai

Euri-garoak igarri barik busti.

Gutxi iruditu arren, pilatuz multzoa egiten da. Euri-garoak purka-apurka bustitzen du

Ez dok tontoa errotaria, artoan truke emoteko garia.

Inork ez dau ezer debalde emoten

Ez jan eta ez lan.

Ezertarako balio ez dauenari esaten jako

Ganorabakoaren etxean, goizeko zopa arratsean.

Ganorarik ez dagoanean, edozer egiten da jateko zein beste edozertarako

Gaua gauekoentzat eta eguna egunekoentzat.

Gauez kontuz ibili behar da, jeinuek eta mamuek urtetzen ei dabe eta

Gauean erroldan eta goizean logura, ezara osasunen gura.

Gauez ibiltea eta goiz altzetea, ez da bape osasungarria

Gaur egin ahal dana ez itxi biharko.

Gaur egin beharrekoa biharko utziz gero, hurrengo egunean egitea gehiago kostatzen da

Ekina baragarria da

Gitxi daukana baino, asko gura dauena da behartsu.

Daukanagaz konformetan ez dana ez da inoiz zoriontsua izango

Goizeko behelainoa, eguerdiko denpora ona.

Goizean behelainoa badago, eguerdian denpora ona egongo da

Guk txarria gizendu eta harek jan.

Behar txarra batzuek egiten dabe eta irabaziak beste batzuek hartu

Gura bada jan, egin behar da lan.

Soloko jeneroa batu ahal izateko, aurretiaz lan handia egin behar da: lurra prestau, hazia erein, soloa jagon, uzta batu...

Gurasoak umeakaz zoratuta, umeak alperrik galduta.

Gurasoak umeari eskatzen dauen guztia egiten badeutsie, umeak alperrik galtzen dira

Guzur baten atzean beste lau datoz.

Guzurra sinisgarria izan daiten, gehienetan beste guzur batzuek apaindu beharra dago

Guzurra esan neban etxean, ni baino lehenago kalean.

Guzurtiak arin harrapetan dira, berehala geratzen dira agirian

Haizea, ura eta sua norbere eskupetik.

Hiru elementuok ahal dala neurrian izan behar dira, hortik gora ezin diralako kontrolpean euki

Haurrak negarrik ez, titirik ez.

Gauzak lortzeko soinu, zarata, protesta, negar egin behar dela adierazteko

Hauxe da lorra! Goian zerua eta behean lurra.

Oso egoera txarrean dagoan pertsona bati buruz hitz egiten danean

Ekina baragarria da

Herriak bere legea, etxeak bere aztura.

Etxe eta herri bakoitzean ohitura jakin batzuk daude, eta haien arabera jokutzen da bertan

Herriak bere legeak eta etxeak bere ohiturak.

Zoazan lekura zoazala edo bizi zaran lekuan bizi zarala, bertako lege eta ohituretara egitea komenidu jatzu

Hilearen bata, bia, zazpia, euria; hile guztia euria.

Egun baten baino gehiagotan euria egin ezkerro, hile osoa izango da euritsua

Hodei gorri, haize edo euri.

Hodei gorriak egon ezkerro, haizea edo euria dakar

Hori da hori: euskeraz mondongo eta erderaz motroilo.

Berba egin behar den hizkuntzan ganoraz egitea garrantzitsua da

Igaz igazkoa, aurten aurtengoa; nekez ezkonduko da ganorabakoa.

Ganorabakoak beti dauka atxakiaren bat ez ezkontzeko

Ikusten ez dauan begiak ez dau negarrik egiten:

Ikusten ez doguzan gauzak edo arazoak ez deuskue minik emoten

Indarrak agintzen duenean, legea isilik.

Indarrak agintzen dauenarentzat, alperrik dira arauak eta berbak

Inoren etxeko umeak erraz hazten dira.

Inork egiten dituan lanak beti dira errazagoak; norberak egiten dituanak, ostera, nekezagoak iruditzen jakuz

Inork emoten dauen ogiagaz, ez dozu gosea kenduko.

Ez da inoren esku itxi behar gure eguneroko ogia

Inork emoten dauena, beti hartu behar da.

Inork emondakoa atseginez hartu, akatsik ipini barik

Ekina baragarria da

Itsurik txarrena, ikusi nahi ez dauena.
auzak ikusi edo ulertu nahi ez dituanari esaten jako

Jakin gura ez danik, esan ez.
Sekretu bat gorde nahi danean, hobe inori esan ez

Jakituna sarritan isilik, ezjakina isildu ezinik.
Zentzunaz berba egingo ez bada, hobe da isilik egon

Jan bako ederrik ez dago.
Asko jan ezkerro, gizendu egiten dala adierazoteko erabilten dan erantzuna da

Jente gaztearentzat dira lana, jana eta dantza.
Gazte behin baino ez gara eta aprobetxau egin behar da

Jose, janda gose, edanda bere egarri, Jose baragarri.
Daukaguna baino gehiago gura izaten dogula adierazoteko erabilten da

Kukuak Andra Mari Martikoz kuku, San Pedroz mutu.
Andra Mari Martikoz, Martxoaren 25etik aurrera, aukera handiak daude Kukua entzuteko

Lagun handia baino errezago da lagun txikia harrapetea.
Lagun onak ez deutsu hutsik egingo; hain lagun ona ez danak, ostera, arinago salduko zaitu

Lanik ez egiteko, lan asko egin behar da.
Buruari asko eragin behar jako lana errazteko edo lanik ez egiteko

Lehorraldian euri eta bustialdian eguzki, eskean beti.
Beti eskatzen dogu faltan doguna

Luki zaharra, beti goiztar eta bizkor.
Gauzak sasoiz egin ezkerro, hobeto aprobetxetan da denporea; geroko itxi ezkerro, estu eta larri ibili beharrean

Ekina baragarria da

Lurrean dagoan arbolatik, dana egurra.

Txarto dagoanari etorten jakoz arazorik gehien

Maiatz iluna eta bagil argia, urte guztiko ogia.

Maiatzean euria eta bagilean eguzkia egin ezkerro, uzta ona izango da

Martiko eguraldia: goizean eguzkia eta arrastian euria.

Martxoan oraindik udaberria etorri barik dagoenez, eguraldia ezegonkorra da eta izan daiteke goizean eguzkia eta arratsaldean euria egitea.

Mikaela eta Peru bitxi, hasarre diranean diru gitxi.

Arazo ekonomikoak dagozanean, bikote harremanetan ere eragina izaten dau horrek

Min bako arranak, ugerrak jan.

Protesta, zarata egin ezean, gauzak nekez lortzen dira

Nagusiak agintzen dauan tokian lotzen da astoa.

Boterea daukanak, berak gura dauena egiten dau

Negarrez, ume bizi beharrez; zaharra hil beharrez.

Negarrez jaio eta hil egiten gara

Nekazariaren arrangura, eskas du eguzkia edo bestela ura.

Nekazaria beti da kexu, eguzki gehiegi eta ur gehiegi ez ditu maite

Non erronomia, han Andra Maria.

Parrandalariari, jaia gustukoa duenari esaten jako

Norberarentzat gura ez dana, ez jako besteari emoten.

Ez egin besteei zuri egitea gustauko ez litxakizuna

Oinezkorik gura ez eta zaldizkorik etorri ez.

Ezkontzeko orduan senargai arrunta gura ez dabenakaitik esaten da, baina arrunta nahi ez dabenentzat gehienetan goi mailakorik be ez da izaten

Ekina baragarria da

Olagizonak eta errementariak, praktxu zaharrak eta begiak gorriak.
Olagizonak eta errementariak behar asko eginda be, beti pobre

On egin dagiala janak eta kalterik ez edanak.
Jaten hasi aurretik esaten da

Ondo eginaren pagua, ate ostean palua.
Ondo egina ez da beti behar dan moduan ordaintzen

Osasuna eta bakea, zorion betea.
Osasuna eta bakea dira zoriona emoten dabenak

Pobre zeruko lore, aberatsa infernuko lebatza.
Aberatsa baino, hobe da pobrea eta ona izatea

San Simon eta San Juda, negua heldua da.
Negua heldu dala esateko erabilten da

Su bako etxea, gorputz odol gabea.
Sua oso elementu garrantzitsua da etxean, gizakiarentzat odola dan bestekoa

Txakur handi baten pupua eta erreal biren trapua.
Arazoei daukien baino garrantzi handiagoa emoten deutesnagaitik esaten da

Txakurra be, jaten emon ezkerro, jantzan hasten da.
Tripea beteta euki ezkerro, danak dagoz pozik

Txarri bakotxari heltzen jako beraren San Martin.
Danei etorten jake momenturen baten merezidu dabena

Txarto esanak parkatu, eta ondo esanak gogoan hartu.
Jende aurreko jardunetan erabili ohi den esaera da

Txingar bat nahikoa da su handia pizteko.
Gauza edo ekintza txiki batek ondorio latzak izan leikez

Ekina baragarria da

Umea hazten da negarragaz eta garia bedarragaz.

Umeak negar egitea gauza normala da

Umeak begi handiak eta tripa txikerra.

Umeek begiekin jaten dutela adierazten du

Umeak geldi egon ezin eta zaharrak ibili ezin.

Edade bakotzak egoera desbardina dakar, umetan lotu barik eta zahartzaroan mobidu ezinik

Umeak ume, hemen eta Parisen.

Umeek leku guztietan egiten dabez umekeriak

Ur garbia iturrian; handik urten ezkerro, zikina.

Egia berehala nahasten dala esateko erabilten da

Zapoak klin-klon, bihar eguraldi on.

Zapoa kantuka dabilenean eguraldi ona dakar



Zazpi bider neurtu eta baten ebagi.

Ondo pentsatu behar da gauzak egin baino lehenago, ez baitute atzera bueltarik izaten eta

Zein hagineta dan mina, han da mihina.

Norbera arduratzen da min emoten deutzonaz eta horri konponbidea topetan ahalegintzen da

Zelango pareta, karakola eta bareta.

Pertsona bi izaeraz alkarren antzekoak diranean esaten da

Zenbat eta gehiago euki, orduan eta gehiago nahi.

Inoiz ez gara daukagunagaz konformetan, beti gura dogu gehiago